

IHESEAN

Gauaren iluntasunaren erdian, bat-batean argi batek esnatu nau, ia indarrrik gabe poliki agondu egin naiz. Jamil urte bat bete berriko neure haurtxoa besoetan dudala, Hajjâj, ertaina, altzoan dagoela, eta Zaida, nagusiena, alboan dudala, guztiak lokartuta. Azkenean, egunak kresalaren aurka igaro ostean, ezpainak idorturik, goseak akabatzen egon ondoan eta itsaso indartsuaren eskuetan egon ondoren, heldu gara. Kosen gaude, Grezian, Europan. Simsarrei txalupan leku bat izategatik ordaintzea merezi egin du, Siriatik atera ginenetik bidaia neketsuaren ondotik.

Egunak eta egunak pasatu dira Eidomenira heldu arte. Hemen, hainbat hirietatik heldutakoak gaude, milaka eta milaka pertsona guztira, denak nekearen nekez, oinak txikiturik. Eta liskar eta borroken artean aurrera egin behar dugu, larritasun eta urduritasun egoera asko jasan behar ditugu, guztiak mugaren beste aldera heldu nahi baitugu.

Behin Gevgelijan, Mazedonian, Greziarekin mugaldean dagoen hirian, hesi bat altxatu dute, eta poliziak bidea eteten du. Jada ez zait diru askorik geratzen, baina Hajjâj eta Zaida trenean bidaliko ditut Serbian dagoen babesleku hurbilenera, bertan topo egin dezagun berriz. Neure seme-alabak albotik aldentzea, eta bakarrik utzi behar izatea, nire bizitzako erabakirik gogorrena izan da.

Mazedoniako poliziak gas negar-eragilea bota ostean, ingurua laino zuri batez bete, eta nire alboan zeuden guztien aurpegiak desagertzen joan dira. Begiak ezin zabaldu, arnasbideak hetsirik, itolarrian, konortea galdu, eta larrean fardel baten moduan erori naiz.

Hurrengo egunean, esnatu egin nintzenean, beste aldera pasatzeko beste bide bat bilatu nuen, eta poliki-poliki, beste hainbat pertsonekin batera nire bideari jarraitu nion. Egunak, orduak, minutuak eta segundoak pasatu arren, amaitu ezineko kiribil baten barruan sentitzen nuen neure burua. Nire pausu bakoitzarekin batera, bihozkada bakoitza bularretik igo eta belarrietara heltzen zen, buruan perkusiozko kontzertua eratuz. Nekea, gosea, indar falta, samina eta neure seme-alabek utzitako hutsunea nitaz jabetu ziren, bidea inoiz baino jasanezinagorik bihurtu zelarik. Bidea jarraitzen nuen momentu bakoitzean, nire seme-alabengatik egiten nuen, haien poztasunaren borrokan irabazle atera gintezen. Jamil besoetan neraman, eta haren begiek bizitzeko itxaropena erakusten zidaten.

Asteak eta asteak gainditu ondoren, ezustean, norbaitek sorbalda ukitu, eta Serbian geundela esan zidan. Ezin nuen sinetsi, bide luzearen, une gogor guztien ostean, nire seme-alabak musukatu eta besarkatu ahal izango nituen, neure paretik inoiz gehiago ez nituela urrunduko ziurtasun osoz nekiela. Presevera heldu nintzenean, galdezka babeslekua aurkitu nuen.

Azkenean, babeslekuan, lokatsez beteriko bideen eta zuraz eta plastikozko oihalez egindako txabolen artean, Umara eta Jamil sartu egin ziren jendez gainezka zeuden pasilloetatik barrena, bere seme alaben izenak oihukatuz, orduan, ilara batean zegoen jendearen artean, bere semeak korrika agertu ziren. Umarak, negarrez, besarkatu egin zituen.

Egunero, 5 milioi errefuxiatu baino gehiago haien herrialdeetatik ihes egin behar dute pairatzen duten egoera larria dela eta. Jamil, Hajjâj eta Zaidaren kasuan bezala, egunero Sirian bonbardaketak daude, eta hango gizartearekin akabatzen ari dira, hil guztien artean haien aita.